

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udala hondartzen ordenantza aldatzen ari da, eta erretzeko eta bozgorailuak erabiltzeko debekua ezarriko du

Bainu-garaian txakurrak hondartzan sartzeari buruzko atala ez da aldatuko, eta, beraz, orain arte bezala, horretarako betoa jarrita egongo da

Donostiako Udala aurrera doa hondartzen ordenantza aldatzeko prozesuan, uda honetatik aurrera hondartzetan erretzea eta bozgorailuak eta soinu-gailuak erabiltzea debekatuta egon dadin. Azkenean, ez da aldatuko bainu-garaian (ekainaren 1etik irailaren 30era) hondartzetara maskotekin sartzeari buruzko atala, eta, beraz, orain arte bezala, debekatuta egongo da hori.

Joan den azaroan, Osasun eta Ingurumen Atalak araudia aldatzeko hasierako proposamena aurkeztu zuen. Proposamen horretan, hiru neurri nagusi jasotzen ziren: erretzea debekatzea, zigarrokinek eragindako kutsadura murrizteko eta kerik gabeko espazioak sustatzeko; zarata sortzen duten gailuak mugatzea, erabiltzaileen ongizate akustikoa eta lasaitasuna bermatzeko; eta urte guztian txakurrek hondartzetan sartzeko modua izatea, Etxeko Animaliak Babesteko Euskal Legea egokituta.

Proposamena herritarrek kontsultatzeko moduan jarri ondoren, erabaki da lehenengo bi neurriekin aurrera jarraitzea eta maskoten sarbideari buruzkoa etenik uztea. "Araudian aldaketa hori egitea planteatu genuen, sinetsirik hiriarentzat positiboa zela eztabaida hori irekitzea. Uste genuen gaiak interes eta jarrera desberdinak sortuko zituela, eta horrexegatik erabaki genuen jendaurrean jartzea. Benetako parte-hartzean sinesten dugu, ez izapide gisa, baizik eta erabakietan eragina izango duen tresna gisa", adierazi du Iñigo García Ingurumeneko zinegotziak.

Jasotako ekarpenak askotarikoak izan dira, eta, kasu askotan, agerian utzi dute, hain zuzen ere, badela kezka bat bainu-garaian txakurrei hondartzan sartzeko ordenantza aldatzeak osasun publikoan izan dezkeen ondorioen gainean. Proposamen guztiak zehatz-mehatz aztertu dituzte Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizatearen Zerbitzuak eta Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzuak.

Prensa oharra

Nota de prensa

Herritarren partaidetza

Parte hartzeko prozesuak agerian utzi du gehiengoa ez dagoela bainu-garaian txakurrak hondartzetara sartzen uztearen alde. Erregistratutako 163 proposamenetatik, % 85,8 kontra agertu dira, % 4,9 alde, eta % 9,2 ez kontra eta ez alde. Eraitza argi hori aintzat hartuta, Udalak bere gain hartu du herritarren mandatua eta gobernu-ekintzan txertatu du.

Hondartzetan erretzeko debekuak, ostera, babes argia izan du: jasotako 51 proposamenetatik, % 72,5 neurriaren alde agertu dira.

Era berean, ia aho bateko babesak izan du bozgorailuek edo beste gailu batzuek ateratzen duten zarata gogaikarria saihesteko proposamenak: erregistratutako 37 ekarpenetatik, % 97 alde agertu dira, eta ez da kontrako botorik izan.

"Eraitza argia da: behar besteko babesik ez duena kendu dugu, eta aurrera jarraitu dugu babes handia duten neurriekin, hala nola erretzeko debekuarekin eta zarata mugatzearekin. Kontua ez da inposatzea, baizik eta gizarte-babesa duten arauak ezartzea. Hori koherentzia, erantzukizuna eta errespetua da", adierazi du Garcíak. Ildo horretan, zinegotziak "parte-hartze handia eta kontsultan erakutsitako jarrera konstruktiboa" eskertu ditu.

Behin betiko onetsi arteko faseak

Jendaurrean jartzeko eta aztertzeko epea amaitu ondoren, proposamena astearte honetan onetsiko da, Gobernu Batzarrean, eta gero batzordeetara igorriko da, talde politikoen proposamenak jaso eta eztabaidatzeko. Adosten diren ekarpenak batzordean onetsiko den irizpenean sartuko dira.

Irizpen hori Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, hasierako onespina eman diezaion eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara dadin. Horren ostean, araudi berria jendaurrean jartzeko epea irekiko da, alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen.

Azkenik, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, araudia behin betiko onetsiko da, eta ordutik aurrera indarrean sartuko da erabat. 2026ko hondartzagarairako (ekainaren 1ean hasiko da) onetsita egotea da asmoa.